

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Sanmielak bete-betean ospatzeko aukera izan da

Urnietako jaiak bustitik hasi eta eguraldi bikainarekin amaitu ziren. Euriak ez zuen festazalea etxean utzi. Eta, asteburuan, jaiak Xoxokan / 2-9

AIURRI

Euskaldunaren mendeurrenaren prestaketa-lanak

Andoaingo Futbol taldeak mendeurrena ospatuko du 2023an, eta, dagoeneko, data seinatuari begira ari da lanean. Argazkiak jasotzeko deialdi zabala egin du / 13



"Hitzez ekiteko garaia" leloa aintzat hartuta, Andoaingo Euskaraldiak festa antolatu zuen / 11



Buruntzako mendi tontorrean ikurrina eskegi dute, bertan altxa duten masta handi batetik / 10



Xoxokako jaiak astelehenean abiatu ziren, eta asteburu osoan izango dute segida / 8-9

bertako -REKIN BAI!
igogailuak | ascensores

OROTARIKO ZERBITZUA
100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA
943 903 450

BIZKAIA
946 523 935

ARABA
945 712 822

NAFARROA
848 870 917

www.bertako.eus



Euriak agerpena izan arren, jaien hasierara dozenaka herrikide hurbildu zen. AIURRI

Amaitu dira Sanmielak, festazaleen gose eta egarria asetuta

Asteazkenetik, igandera bitarte, jai giroan murgildu da Urnieta. Adin eta gustu guztiei begirako hitzorduak izan dira, hiru urteren ostean, festak ohi bezala ospatzeko. Euria gogotik bota zuen jaien hasieran, eta eguraldi ederrarekin amaitu ziren festak

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Ederrak. Ezin zuten beste modu batekoak izan. Etorri bezala, joan egin dira, jada, 2022. urteko San Miel festak, eta, zein modutan, gainera! Ohera sartu eta apur bat deskantsatzeko aukera izan ezik, guztia egiteko denbora egon da azken egunotan herrian, eta hori aurretik egin den antolakuntza-lan luzeagatik izan da posible. Asteazkenarekin hasi zen ospakizuna, Udaletxeko balkoitik hiru hamarkadako ibilbidea soinean, Bosko Anitz aisialdi-taldea txupinazoa bota zuenean. Miela bera ere pozik zen, herrigunera jaisteagatik, hainbeste denboraren ondoren. Elizako kanpadorretik jaitsi zen mantso eta San Juan plaza airean zeharkatu zuen, makina bat begi adi-adi eta ahoa zabalik, begira zituela. Eta udaletxera jaitsi eta etxaferoek zerua kolpatu zute-nean hasi zen ospakizuna. Bien bitartean, txupinazo alternatiboa egon zen txosnagunean, txalartaren laguntzaz, eta kontzertu akustikoarekin nahiz techno giroko musikarekin.

Adineko, heldu, gazte eta txiki. Nor bere erritmora, nor bere

planetan, ez da inor aspertu festetan. Goizean goizetik hasita, gaueko ordu txikietara bitarte, zer gozatua egon da Urnietan. Kanpoan bizi denak ere aitzakia ederra topatu du jaioterrira itzultzeko. Horixe ere izan direlako festak, aspal-di ikusi gabekoak besarkatu eta topa egiteko egunak. Oro har, eguraldia lagun izan ez arren, ez da batere oztupo izan herritarrak kalera irten eta igandera arte ez etxeratze. Puro Relajo taldearekin, adibidez, makina bat urnietar bertaratu zen Egape Ikastolako estalpera rantxerak, korridoak eta euskal moldaketak dantzatzera.

Kasualitate hutsa izan zen osteguneko mozorro-festako gai: Urnieta ur azpian murgildu zen. Txosnagune kanpoan, zerua gris eta euria gogotik, barra-barra. Txosna barruan, herri osoa sukaldaritzalanean urpean igeri egiteko betaurrekoak nahiz aletak jantzita, eta patata-tortila usaina nonahi. Herriko artistak oholtza gainera igotzeko aukera eduki zuten gero, eta giro ederra ipini zuten The Roristak zein



Kyxo taldeek. Berezia izan ohi da urnietarrentzat gau hori.

Halaber, txikiak agindu zuten ostiralean, Haurraren Eguna izan baitzen, hain justu ere. Diana goiztiarrak esnatu zituen Alkate Txikiak: plisti-plasta ekolasekin eta puzgarriekin gora eta behera ibili ziren saltoka, baita korrika ere, buruhandiatatik ihesi. Kirol erakustaldien txanda egon zen, besteak beste, iluntzean, esku-pilota jaialdian, eta elkartasunerako tartea ere izan zuen egunak, inoiz hutsik egiten ez duen oilasko-jatearekin. Urnietako Elkartasun Ekimena arduratu zen afariaz, Jon Lizarribar eta Ruben Genbeltzu herrikideei babesa adierazi asmoz osatutako egitarauaren barruan. Askotariko musika-estiloek hartu zuten gaua, gero, asteburuari ongietorria emateko.

Larunbata, jendetsuena

Gainezka egin zuen larunbatak Urnietan. Herritar askori ere handi gelditu zitzairen eguna; gaua, batez ere. Begi zuloak nagusi baziren ere, indarrak soberan zituzten gordeta urnietarrek asteburuako egitarauaz



Bosko Anitz aisialdi taldea izan da aurtengo jaietara eman dion Urnietako eragilea. AIURRI

disfrutatzen jarraitzeko. Eguerdian, herriko zenbait plazatan egindako bazkariak, ospakizun egun handia izango zela iragarri zuten. Kolore berdez jantzi zen, esaterako, San Juan plaza eguerdian, Berdeek eta Etxeberri auzo elkarteak antolatu zuten paella dela eta. Ordu berean, berriz, txosnagunean, ia 400 pertsona bildu ziren Poxta

Zahar elkarteak egindako herri bazkariaren bueltan, kolore larrosako kamiseta soinean zutela: “Aizan, urnietar, ze in bihar diñau herriyan alde? Ze in biharko iu ba! Muittu!”. Bazkaloste ederra izan zen bingo musikatuarekin eta jarraipen ezin hobea eman zion atxalderi Zuttik elektrotxaranga Idiazabal kalean barrena, baita ordu

berean egin zen Urdanborren danborradak ere.

Ilundu orduko, geroz jende gehiago agertzen hasi zen herrian. Gauean, gainerako egunetako xumetasunarekin aldearatu, Euskal Herriko hamaika txokotatik (baita urrunetik ere) bertaratu zen jendea txosnagunera. Hara eta hona parrandazaleak, bafleetako musika gogor

bitartean, eta izerdi-patsetan buru-belarri lanean txosnaguneko bost eragileak, ia egunsentira arte. Lotara joateko aitzakia gutxi, hortaz. Gainera, gosari musikatua izan zen biharamunean, Iruñea inguruetatik etorritako Eguzki txaranga giro-tuta; gaupaseroei are beranduego etxeratze motibo ederra.

Ahozabalka eta eztarria urrututa ziren igandean urnietar gehienak, festak amaitu direla ezin kudeatu. Alabaina, barrenak goxatu zituen Kantazaun-ek, euskal kantuz gozatzeko hitzordua antolatuta, bazkari eder baten bueltan. Dantza-sokak ere bere betiko ohiturari eutsi zion, eta ez zuen kale egin, San Juan plaza jendez bete baitzen Gozategiko erromerian gerria mugitu ostean, herritarrak alkandora txuriz eta mahoiz ikusteko prest.

Amaitu dira festak, eta, jada, hurrengo urtera begirako atzera kontuarekin egongo dira herritarrak. Itzuli da Miela Marizulora, eta datorren udazken hasierari itxaron beharko berriro elkar ikusteko. Edo ez, Xoxokako festak hasi besterik ez dira egin eta...

URNIETA

GORA

2022ko SANMIELAK

EZ beti da EZ

Jaietan gozatu, errespetuz

Urnietako udala



Patata-tortilla lehiaketa



Argazkirako eta afarirako animoz beterik zegoen irudiko kuadrilla. AIURRI

Ostegun gaua Azken urteotako joerari eutsiz, hitzordu jendetsua izan zen txosnaguneko patata-tortilla lehiaketa. Adin guztietako dozenaka herrikidek parte hartu zuten. Afaria herriko musika taldeen emanaldiarekin amaitu zen.



Kuadrilla bat patata-tortillaren prestaketa lanetan. AIURRI

Mozorro festa Aurtengo mozorro proposamena "Urnieta ur azpian" izan zen. Hala, kuadrilla asko mozorrotuta joan ziren afaria prestatzera. Urpeko animaliak, urpekariak... Egun euritsurako aukera aproposa suertatu zen.



Giro ederrean elkartu ziren txosnagunean. AIURRI

Jaia, bilgunea Sanmielak lagunak elkartzeko aukera bikaina izaten dira. Eta jana nahiz edana elkartze horretan giltzarri dira. Badira inoiz hutsik egiten ez duten festazaleak. Argazkiko kuadrillako lagunak, esaterako.



Zaletu amorratuak dituzte Puro Relajo taldeko kideek. Egape ikastolako jolastoki estalian dozenaka jarraitzaile zain zituzten. AIURRI



Aurtengoan ez zen erraldoi eta buruhandien konpartsaren kalejirarik izan. Kontzejupean ikusgai izan ziren. AIURRI

Sanmielen jarraipena Aiurri.eus webgunean

Sanmielak iraun bitartean Aiurri.eus gunean egitarauko hainbat ekitaldien argazki-bildumak eta bideoak eskegi dira Sanmielak 2022 izeneko atal berezian. Jaiak igarota, bertan ikusgai daude aurten nabarmendu diren ekitaldiak. Bustitik hasi ziren jaiak eta eguraldi ederrarekin amaitu. Gune estalietan nahiz kanpoaldean jaia nagusitu da.



Urnieta
udala



Atzean, Aratz Cabanillas eta Aiora Aierza dantzariak. Aurrean, aurtengo alkate-txikiak: Afrika Iborra eta Ruben Agudo. AIURRI

Urdenbor taldearen irteera



Jantzi dotoreak dituzte Urdenborreko kideek. AIURRI

Dotorezia Jantzi eleganteak soinean jarrita eta, eguraldia lagun, dotoreziz beteriko danborrada osatu zuten. Bi urteko etenaldiak, gainera, ez du eragin kaltegarrik izan eta danborradaren osaketarako dozenaka lagun prest agertu ziren.



Xaibor disko jartzailea Kontzejupera begira jarri zen, ikusleak eta dantzariak babesean egon zitezten. AIURRI



Plazido Muxikatik herrigunera abiatu ziren. AIURRI

Kalez kale Bada aipatu beharreko xehetasuna: emakumeen parte-hartzea oso handia da Urdenbor danborradan. Plazido Muxikatik abiatu ziren, Urnietako kaleetan barrena, burrunba hotsen bidez, danborradaren berri emateko.



Urdenborreko beteranoak San Migel elizan. AIURRI

Elizan San Sebastian martxa, San Roke eta Urnietako ereserkia jo zituzten San Migel elizan. Beste urte batez tradizioarekin kunplitu zuten. Dozenaka lagun elkartu zen, gainera, elizan egin zuten saioa bertatik bertara ikusteko.





Ez ohiko irudia izanagatik, indar berezia du larunbat arratsaldean Idiazabal kalean ateratako argazkiak. Ikus daitekeenez, makina bat gazte elkartu zen argazkirako. AIURRI



Koadrilla ugari elkartu zen larunbat eguerdian, txosnagunean egokitutako bazkarian. AIURRI



Bazen beste bazkaria, San Juan plazan. AIURRI



Jendetza elkartu zen Poxta Zaharrek larunbatean antolatu zuen herri bazkarian. AIURRI



Julen Gabirondo, Beñat Telleria eta Nerea Arruti jaietan herri-kirol erakustaldian. AIURRI




Igande eguerdiz kantuzaleak eta bertsozaleak elkartu zituen Kantazaun taldeak. AIURRI



Urnietako elkartasun ekimenak antolatu zuen oilasko-jatea. AIURRI



Dantza-soka ikusgarria izan ohi da, San Juan plazak gauez duen xarma bereziarekin. Aurtengoan Egapek herrikide ugari erakartzea lortu zuen. AIURRI



Zezen suzkoarekin iritsi zen azken traka, eta, ondorioz, San Miel jaien amaiera. AIURRI



Jendetza batu zen igande gauean. Asko eta asko gora begira zeuden, Miela agurtzen ari baitzen. AIURRI



KANTOI
T A B E R N A
San Juan plaza, URNIETA

Alokairuan
INFORMAZIOA:
Xera inmobiliaria. Idiazabal, 22.
943 33 11 73



Astehenean, dantzan eta bertsoan aritu ziren Adarra jatetxean, Xoxokako jaien hasieran. AIURRI

Bertsotan hasi zituzten festak

Astehenetik igandera bitarte, hemen dira Xoxokako festak. Sanmielen amaieraren biharamunean, bertso bazkaria antolatu zuten herritarrek Adarra Jatetxean. Ohi bezala, herri-kirol saioak, zahagi-ardoa eta gau sorpresa izan ziren jaien hasieran

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Urnietar askok astehena alda pa gora hasi bazuten ere, bada oraindik zer ospatua herrian, izan ere, ailegatu dira Xoxokako festak. Ohiturak berreskuratu asmoz, asteari ekiteko, herri kirol erakustaldiaren ondoren, bertso bazkaria egin zuten Adarra Jatetxean, Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariak lagun.

Umorea hizpide, errima doinuetan murgildu ziren ilundu bitartean, bazkalostetik hasita. Hitzordua baino lehen, eta, postrea jan berritan, musikaz girotu zuten arratsalde hasiera. Haur, gazte, heldu eta adineko, nor bere txokotik bertaratu zen jatetxera, auzoko festei hasiera emateko. Hori bai, nagusienek ondo baino hobeto erakutsi zuten duten sasoi ederra: trikitixa eta pandero doinuak entzun

ordu, aulkitik zutitu ziren hainbat eta hainbat emakume; soltean edota binaka, hara eta hona dantzatzeko.

Atsedean hartu, eta, berriro, taberna erdira gorputza mugitzera, bertso-saioari ongi etorria emateko.

Bada, hain justu ere, horri tiraka ekin zioten bertsoan bi kideek, gai librean, eta, luzerako eman zuen gaiak. Honela zioen horietako batean Arzallusek:

Zuekin alper-alperrik dira pastilla eta mediku.



Amets Arzallus eta Andoni Egaña bertsolariak. AIURRI

Gisa hortako sasoiarekin ze indar ta ze meritu. Trikitilariak ere hor zeuden ezin ondo errenditu, zuen pausoan abailari ezin ziela segitu.

Ezin izan zioten tonu serioari luzaroan eutsi bertsolariak, izan ere, mikrofonoa piztu bezain pronto, inguruan zuten guztiari zukua atera eta txantxa artean aritu ziren. Ikus-entzuleen barre algarek egiten zuten bertso batetik besterako lotura, giro gozo bezain xamurra sortzen ari zelako erakusle.

Puntuka aritzeko tartea ere hartu zuten:

Arzallus: *Baina Xoxokan dago zelai bat earra*

Egaña: *Ba biok daukagu probatu beharra*

Arzallus: *Ta Gabirondok moztzen omen du belarra*

Egaña: *Hori egia al da? Bueno kaka zaharra!*

Herritarrek bi bertsolariak ezagutzen dituzten horrenbeste dakite bi kideek Xoxokako hitzordu berezi horretara bertaratzen den jendeaz. Horientzat ere Egañak bazituen gordeak zenbait errima:

Kontua esaten du sekulako pila.

Goizez hartu txakoli ta hartu tortilla.

Hogeita bost urtean datorren mutila, beste hogeita bostean etorri dadila.


Jatetxean, beroketa-lanak egin ondoren, autoak hartu eta Be-sabira igo ziren denak, festarekin jarraitzeko. Saioak aurrera egin ahala, adar-jotzea areagotuta, herritarren arreta guztiz bereganatua zutela ikusi zuten Arzallusek:

Isil-isilik daukagu denak lehen bazen zurrunbiloa.

Ta gisa hortako isiltasunak guri ze korapiloa.

Nahiz honek eztun elizak duen retabloaren brilloa, zuk egintzazu apaizarena eta ni monagilloa.

Eguzkia sartu arte egon ziren doinuen epeletan; bazkalostea gaueko otorduarekin josi zuten bertsoek. Ederra zen giroa astehenean Xoxokan, herriguneko ajeak baretzeko eta Adarra magaleko festarako grina, aspaldiko partez, berreskuratze.



Jaien hasierako irudia. XOXOKA

Bus-zerbitzua Xoxokako festetara hurbiltzeko

Asteburu osoan zehar Xoxokara igotzeko eta jaisteko zerbitzua eskainiko du Udalak

Erredakzioa URNIETA

Xoxokako festak medio, urriaren 7an, 8an eta 9an doako autobus-zerbitzua egongo da Xoxoka eta Urnietakoa herrigunera lotzeko. Denda Berri zaharren egoitzako biribilgunean egongo da aukera autobusa hartzeko.

Ostirala

Ostiralean, Xoxokara igotzeko aukera izango da honako ordu-tegi hauetan: 18:00tan eta 20:00tan.

Aldiz, itzultzeko autobusa ere ipini da afalorduan, 20:30ean. Lasai, parrandazaleek ere izango dutela ostiralean jai giroan egoteko aukera, ordu txikietan ere autobusa egongo delako: 00:30ean, 01:00an, 03:00tan zein 06:00tan.

Larunbata

Larunbatari dagokionez, 16:30ean zein 20:00tan 00:30ean egongo da aukera Urnietatik Xoxokara igotzeko.

Itzuleraren kasuan, berri, 20:30ean autobusa ipini da iluntzean. Gau horretan ere herritarrek festaz lasai gozatzeko aukera izango dute, autobus-zerbitzua egongo baita Urnietakoa herrigunera jaisteko, hain zuzen ere, 01:00tan, 04:00tan eta 06:00tan.



Denen artean antzezlan aparta eskaini zuten Xoxokako plazan, astearte gauean. AIURRI

Ai Ixabel, Ixabel... Altzibarko Ixabel!

Auzo antzerkia tradizio handikoa da Goiburu aldean, eta, egun, gotorleku modukoa bilakatu da, antzeko ekimenak han eta hemen desagertzen ari baitira. Asteartean, Xoxokara hurbiltzea esperientzia paregabea izan zen

Jon Ander Ubeda URNIETA

Xoxokako gazteak aktore bilakatzen dira behelainoan. Meritu handiko langintza da, eskertu beharrekoa. Hein handi batean, plazaren bueltan hurbildu zen ikusle goaren jarrera hori zen. Ikusle modura gozatzea, eta eurentzat auzokide ausart horiek prestatu zutena eskertzea. Hogeita hiru lagun zenbatu genituen, emanaldiaren amaieran publikoak agurtzeko unean. Lan kolektibo handia, auzotarrek auzotarrentzat eskainitakoa. Nazioartean aktualitatea diren bi auzi entzutetsuenak aintzat harturik, Xoxokako plaza Londres hiriko gune erabakior bilakatu zen. Ixabelen azken afariaren, heriotzaren eta heriotzaren osteko botere-jokoaren lekuko izan zen. Azkenereko Ixabelen semearen eta Putinen arteko oilarjokoa ezagutu genuen. Ama eta semea, biak hilda amaitu zen antzezlana. Ukraina, Errusia, Britainia Handia... asteartean nagusitu zena Xoxoka izan zen.



Goian, Altzibarko Ixabel. Behean, Ixabelen familia dotorea. AIURRI

XOXOKAKO JAIAK 2022

OSTIRALA 7

18:00 Toka txapelketa Eskolan.

18:00 Elektropottote
Elektrotxaranga. Plazan.

20:30 Bertso afaria Xoxokako plazan Eli Pagola eta Iker Zubeldiarekin. (Tiketak Adarra, Zelai eta Guria tabernetan salgai).

01:00 Gaupasa Alabarrunaren eskutik.

Paolla eta Igoien Pikaberaren aurka.

16:00 Mus azkarra txapelketa Xoxokako eskolan. Izena ematea 15:00etan hasita.

16:00 Gaztelu puzgarriak haurrentzat.

17:00 Gorriti eta bere animaliak. Jarraian, txokolatea izango da haur guztientzat.

20:30 Betizu jatea Xoxokako plazan (Tiketak, Adarra, Zelai eta Guria tabernetan salgai).

LARUNBATA 8

10:30 Zaldien aurkezpena Xoxokako plazan.

11:00 Zaldi karrera. Beatsaburu baseritik plazaraino izango da.

11:30 Hamaketakoa Xoxokako eskolan.

11:30 Puzgarriak haurrentzat.

12:30 Aizkora apustua. Ibai Soroa eta Jokin Alkizalet, Suharri

01:00 Gaupasa: Iratzar taldea.

02:00 DJ Aros Xoxokako eskolan.

IGANDEA 9

12:30 Meza nagusia. Ondoren, Egape dantza taldea.

17:30 Herri Kirol lehiaketa.

18:00 Sagardo dastaketa auzoko sagardogileekin.

20:30 Festen amaiera.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



GUTUNA

MILA GARRALDA ANDOAIN

Azken agurra

Jabetuta heriotza ate-joka neukala, Junkal alabaren laguntzarekin esker oneko idatzi labur hauxe idaztera animatu nintzen. Erregutuz, heriotza ostean argitara zedila.



AIURRI

Zertarako, eta nire bizitza osoan bidelagun, makulu eta poz-iturri izan ditudan pertsoneri esker ona agertzeko asmo apalez.

Nori? Bada, betidanik –eta azken egunetan are gehiago– gertu-gertu eta goxo-goxo eduki ditudan familiako kideei ez ezik, gizakion abentura bizigarri honetan egin ditudan makina bat adiskideei, lagunei eta hainbat urtetan Amaia alabak eta biok Kale Nagusian eraman genuen Kuttun dendako bezero fidelei ere. Eta halaber, eta nahiz eta

gugandik urrunago bizi, doakie idatzi honen eskutik besarkadarik handiena sasoi batean espiritualtasun pertsonalean erabat lagungarri izan nituen Jean Borellari eta bere emazte Gabrielari, Karmele Urdanpilletari eta Jose Antonio Garmendiari. Guztiei ere zoriona opa dizuet, bihotz-bihotzez!



AIURRI

Buruntzan ikurrina topatuko du mendizaleak

Andoaingo mendigainan ezusteak ez du amaierarik. Larunbat goizean ikurrina eskegi zuten, eskegitzeko propio altxa zuten masta handi eta sendo bat tontorrean jarriz. Abertzale diren herritar talde batek bere gain hartu zuen ekintza.

Urte luzez, Buruntzara iristeko azken metroetan, gurutze handi batekin topo egiten zuen mendizaleak. Iragan hilabeteotan, aldiz, ez zen ezer ikusten azken metroetan tontorrera begira jarrita. Aurrerantzean, masta mardula eta Ikurrina topatuko du mendizaleak.

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebezez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urnietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzailak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea.
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ **ALJATUAK:** TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA **Urnietako udala**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia **Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza**

ZIURTAGIRIA: **B** **BABESLEAK:** **Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.**

andoainDARRA
euskaraz



Makaldegian berrehundik gora lagun elkartu ziren, ostiral iluntzean. AIURRI

Hitzez ekiteko garaia dela aldarrikatu zuten

Andoaingo Euskaraldiak aurkezpen-festa antolatu zuen, aurreko ostiralean. Musika aldaera ezberdinetan oinarriturikoa, lagunartean eta familia giroan afaltzeko aukera eskaini zuen. Euskararen aldeko hitzorduak ez dira faltako, udazken honetan

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Euskararen aldeko kalejira eta gaua uste baino hobeto atera zen, azken orduan dozenaka lagunek erosi baitzuten bokata-afarirako txartela. 200 lagunetik gora saldu zen, eta, ondorioz, Makaldegian sortu zen giroa oso polita izan zen. Goiztxo bukatu zen festa, aukeran.

Babes zabala

Udal ordezkariak politikoa duten lau alderdiek babesa erakutsi zioten Euskaraldiari. Hasierako ekitaldian, Udal gobernu taldeko Maider Lainez nahiz Petri Romero sozialistak eta Txitxu Ruiz zein Imanol Goenaga jeltzaleak izan ziren. Ordu horretan, bokata-afariko sukalde lanetan ari ziren Elkarrekin Podemoseko Pepe Iparragirre eta EH Bilduko Andoni Alvarez. Eta ezin aipatu gabe utzi bokadiloen prestaketan, barraren antolakuntzan, arroparen salmentan eta Makaldegia atontze lanetan ekin betean izan ziren dozenatik gora euskaltzaleak. Haiei guztiei esker aurre-

ra atera zen aurrera, Euskaraldiaren aurkezpen-festa. Horrez gain, elikagaiak, edaria, ogia eta bestelako produktu guztien erosketa Andoaingo merkataritzan egin zen, eta okasiorako parte hartu zuten ostalarien eta merkatarien jokabidea txalotzekoa izan zen.

Azaroan murgilduko gara, bete-betean, Euskaraldian. Bitartean ez da ekimenik faltako. Hitzez ekiteko garaia delako, Euskaraldiaren goiburua aintzat

hartuz gero. Eta Andoainen, honako hauxe da euskararen agenda nabarmenena: Urriaren 7an, Mintzodromoa antolatu dute Mintzalagunek. Urriaren 14an, Bernardo Atxaga eta Imanol Rayo "Bi Anai" filmaren emankizun berezira gonbidatu ditu Aiurrik. Eta, urriaren 31n, "Gau beltza" antolatzen hasteko prestaketa lanetan murgildu da Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. Argi dago: 2022ko udazkena euskararena da.



Ekitaldia Plaza Morean abiatu zen. AIURRI

Festa itzela



Maizorri txalapartako kideek eman zioten hasiera, ospakizunari. AIURRI

Txalaparta Erakusketa zabalik dute Maizorrikoek, eta aurreko asteburuan 20. urteurrenko ospakizunetan murgilduta ibili ziren. Euskal ekitaldi gehienetan txalaparta izan ohi da jende elkartzeko deialdia. Andoainen ere hala izan zen, Euskaraldiaren festatxoan.



Mulamboko kideak Plaza Moretik abiatu ziren, Kale Nagusira. AIURRI

Perkusioa Tolosatik Andoainera hurbildu ziren Mulamboko kideak. Herri ezberdinetako ordezkariak osatzen dute, maila handiko batukada osatuz. Andoaingo Kale Nagusian behera herrikide askoren arreta bereganatu zuten.



DJ Ezekiel eta Ixiar Oreja aurkezlea, Makaldegian. AIURRI

DJ Saioa Afalorduan eta afalostean disko jartzaile bikaina izan zen. Etxekoa, gainera. Andoaingoa, esan nahi baita. Aritz Agirre DJ Ezekielen erritmoan gaubela polita bizi izan zuten Makaldegira hurbildu zirenek.

Tokiko energiaren aldeko ekimen zehatza

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak 30.000 euroko inbertsioa iragarri du, Allurraldeko kiroldegiko estalkian instalazio fotovoltaikoa jartzeko. Sortuko den energiarekin alde zaharreko 250 etxebizitza eta merkatalgune estaltzea espero da

Erredakzioa ANDOAIN

Astearte eguerdian, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diputatu Jose Ignacio Asensio Andoainera hurbildu zen, eta, Maider Lainez alkatea eta Petri Romero Kirol eta Ekintza fisikoko zinegotzia alboan zituela, Andoaingo tokiko energia komunitatearen aurkezpena egin zuen.

170 kW-ko eta 410 plakako instalazioa egitea aurreikusi dute, Andoainen. Aldundiak emandako datuen arabera, "Instalazioak 1.800 m²-ko azalera erabilgarria izango du, eta energia berdea eramango du, auto-kontsumoko erregimenean, instalazioaren 500 m-ko erradioan kokatuta dauden Andoaingo 250 etxetara. Lehen instalazioa Allurralde kiroldegiko estalkian egingo da eta bigarren estalki bat ipintzeko bideragarritasuna aztertzen ari dira. Ingurumen Departamentuak 30.000 euroko inbertsioa egin du ekimen hori abian jartzeko. Horren bidez, energia garbia ekoizti eta kontsumitzeko aukera emango du, zero kilometrokoa eta autokontsumo formatuan, 250 familiari eta denda txikiri, % 25eko aurrezkiarekin". Udalak doan lagako ditu eraikin



Ordezkeri politikokoak eta teknikoak, Allurraldeko atarian. ALDUNDIA

publikoen estalkiak instalazio fotovoltaikorako. Maider Lainez alkateak eskerrak eman zizkien Ingurumen diputatuari eta bere taldeari, "batez ere, bere departamentutik jaso dugun laguntza tekniko eta ekonomikoagatik; izan ere, bere ekintza eta laguntza-ildoekin apustu argia egiten du Gipuzkoako udalerrriak gero eta jasangarriagoak izan daitezen".

Asensio diputatuak adierazi duenez, "energia gizarte-eskubide bat da, eta etxebizitzak energia-sistemaren erdian ko-

katuko dituen eredu bat behar dugu, energia garbia eta fakturan dirua aurrezteko behar diren tresnak eskura izan ditzaten".

Norabide horretan, Asensioeren hitzetan, herritarrak "energia-trantsizioaren prozesuan zeregin aktiboa izatera pasatzen dira, komunitatea sortuz eta energia-kultura berri bat sortuz, non pertsonak erabaki, aurrezki eta ezagutza-ahalmen handiagoa hartzen baitute eredu tradizionaletan baino. Urrats oso garrantzitsua da, inor atzean utzi gabe".



Maizorri taldeko kideak eta lagunak kanpandorrean. AIURRI

Txalakanpaiak eta Kirikoketa, Maizorriren urteurrenean

Aurreko asteburuan ospakizun ugari antolatu zituzten Andoainen, taldearen hogeitau urteko ibilbidea ospatzeko

Xabier Lasa ANDOAIN

Maizorri Txalaparta Eskolako kideek "Txalakanpaiak" eta "Kirikoketa" ikuskizun bikoitza antolatu zuten larunbat goizean, 20. urteurrena ospatzeko. Andoainen artean ikusi gabeko ikuskizunak izan ziren biak ere, zein baino zein deigarriagoak.

Goizeko 10:00etan, San Martin elizako dorrera igo eta, txalaparta doinuez, elizako kanpai nagusia astindu zuten, "gure ttakun eta herrenak lau haizeetara zabaltzeko" asmoa betez.

Ondoren, Juanita Alkain plazara jaitsi, eta, bertan, "Kirikoketa" saioari ekin zioten, ikusle ugariaren aurrean. Sagardoa ekoizteko sasoian, baserrietan, sagarrak jotze horretan erabiltzen zuten lanabesetik dator Kirikoketa musika tresna zaharra. Bada, Maizorri kideek iragarria zuten bezala, "Kirikoketaren eritimoaz sagarra zanpatu eta

tolarean estutu ondoren zuku edan eta sagardoa egin" zuten; eta bien bitartean, zenbait txalapartariak makilak ederki astindu zituzten.

Ikuskizun bihurtu zuten sagardoa ekoizteko lan-prozesu horren emaitza. Mosto gozozkoa ekoizti zuten, eta Juanita Alkain plazara bertaratuta ziren herritarrek bertatik zurrutadaren bat edo beste egin ahal izan zuten, mokadu bat jenez batera.

Bi ikuskizunak txukun burutu ostean, 14:30ean, hirurogei lagunez osatutako txalaparta zaleen kuadrillak babarrun-jate herrikoiarekin gozatu ahal zuen, Etxeberrieta plazan.

18:30ean Txala Bertso poteoari ekin zioten tabernaz taberna, Punttuka bertso eskolako kideekin batera. Ilunabarrean, Txalaparta Party Apartak eta DJ Barru-k amaiera eman zioten egon osoko festari.



Hamargarren denboraldia abiatu da

- "Aiurri" taldean astero zozketa egingo dugu: KMO produktuez betetako otarra.



DEIALDIA

SD EUSKALDUNA ANDOAIN

Argazki-bilketa

SD Euskalduna futbol-taldea 2023an mendeurrena ospatzeko ibilbidea hasi da. Andoaingo elkarteak argazkiak biltzeko kanpaina hasi du, Udalerrian urdiña-taldeak egiten duen futbolaren testigantza grafikoak bildu nahi dituen argazki-erakusketa egiteko. 2000. urtea baino lehenagoko argazki zaharrak ekartzeko eskatu die klubak auzotarrei, 40ko, 50eko, 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako material fotografiko horri dei berezia eginez.

Taldea sortu zenetik (1923an) 2000 arte behar dira nagusiki, urte honetatik gaur egun arte argazki digital ugari baitaude. Irudiak biltzeko lana abian da dagoeneko, eta, oraingoz, Andoaingo Udalaren artxiboak emandako balio historikoko argazki batzuk daude. Urrian, argazkiak eman nahi dituenak, euskalduna.mendeurrena@gmail.com helbide elektronikora bidali edo zuzenean Urrats Inprimategira (Zumea kalea, 19) eraman ditzake. Hor eskaneatu eta jabeai itzuliko zaizkie. Euskaldunatik eskatzen dizuegu irudi



guztietan zehaztuta etor daitezela egin ziren urtea eta interesgarria izan daitekeen beste edozein informazio. Era berean, elkarteak baimena eskatuko du utzitako argazkiak erabili ahal izateko. Argazkiak 2023ko apirilaren amaieran argitaratuko dira. Argazkiak paperean erakutsiko dira, eta beste batzuk Urdiñako klubaren historia ahalik eta modurik osatuenean erakusteko proiektatuko dira, 1923az geroztik -jokalariaik Etxeberrietako lur-eremu mitikoan lehiatzen zirenean-, gaur arte. Irudiak jasotzeko azken eguna urriaren 31 izango da".



Aldai-Mendizabal. HIRUHIRIBURUAK

Hiru Hiriburuak txapelketa jokatzeko ari da Mendizabal

Erredakzioa ANDOAIN

450 ikusleren aurrean eta telebistako kamerak aurrean zirela, jokatu zen lehen partidaren Nora Mendizabal andoaindarrak parte hartu zuen. Baita irabazi ere, Amaia Aldai bikotekide zuela. Jokoak bi zati oso desberdin izan zituen; lehenean, Arraiza eta Gaminde markagailuan aurretik izan ziren. Gerora, Aldaik sakean min asko egin zuen eta atzeko lerroetan Mendizabal oso seguru aritu zen. 22-11 gailendu zen Aldai-mendizabal bikotea, Gasteizko Mendizorrotzan.



SDEUSKALDUNA

Areto futbolaren historia bizia

Esperientzia handiko jokalaria dira Aitor Garcia eta Maikel Fernandez. Hurrenez hurren 21 eta 23 urte eman dituzte elastiko urdina jantzten. Aurrekoan bi jokalaria klubaren, taldekien eta zaletuen omenaldia jaso zuten. Eguzki taldearen aurkako partidaren aurrean izan zen. Euskaldunak, gainera, 1-0 irabazi zuen.



SDEUSKALDUNA

Kronika

ERREMONTA JAIALDIA

URRIAK 7 - 17:00
GALARRETA JAI-ALAI

SARRERA 12€
PINTXOA + EDARIA
*10 URTETIK BEHERAKOAK DOAN

SORTZAILEEN POSTUAK

ZUZENEKO MUSIKA

ERREMONTA TXAPELKETA:

1. PARTIDUA (20 TANTU)

HERNANI vs ASTIGARRAGA
LOTEZ - BARRIENTE IV GONZALEZ - LARRANAGA

2. PARTIDUA (20 TANTU)

GOIZUETA-ARANO vs EREÑOTZU
HERRA - BEZTEINA ANA IV - MARTINEZ

3. PARTIDUA FINALA (20 TANTU)

22 SAGARDOTEGITAKO SAGARDOA:

ANARREGI · ALBERRO · ALTZUETA · ARTOLA ·
ELORRABI ELUTKETA · EULA · GARTZIATEGI ·
GONKO-LASTOLA · BURUTZETA · IPARRAGINHE ·
ITXASBURU · LAURE-GAIN · LIZEAGA · DIALUME ·
ZAR · OLAIZOLA OTSUA-ENE · OYARRIDE ·
PETRITEGI · RUFINO · ZAPIAIN · ZELRIA

SALMENTA-GUNEAK:

ERRENTA
GALARRETA (GALARRETA BARRIOA)
GALARRETA (GALARRETA BARRIOA)
GALARRETA (GALARRETA BARRIOA)

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 7

URNIETA Xoxokako jaiak
Egitarau osoa, 9. orrialdean.
Urriak 7, 8 eta 9.

ANDOAIN Mintzodromoa
AEKren eskutik, euskararen erabilera sustatzeko egitasmoa.
17:30 Juanita Alkain plaza.

ANDOAIN Dantza
"Quo" ikuskizuna. Garaikidea.
19:00 Bastero.

URNIETA Antzerkia
"Lagun beltz asko",
aurre-estreinalea.
19:00 Sarobe. 5 euro.

ANDOAIN Erakusketa
Euskal Herriko soinu-tresnen erakusketa, Maizorriren eskutik.
Azken eguna: Urriak 15.
Bastero, erakusketa gela.

LARUNBATA 8

ANDOAIN Ospakizuna
Zumeatarra elkartearen
50. urteurreneko ospakizuna.
12:00 Meza eta ondoren argazkia.
14:30 Bazkaria elkartean.

ASTEARTEA 11

ANDOAIN Parketarrak
Haurrak euskaraz aritzeko ekimena.
17:15-18:15 3-5 urtekoentzat.
18:15-19:15 6-9 urtekoentzat.
Goikoplaza.

OSTEGUNA 13

URNIETA Jabekuntza Eskola
Parte hartzeko izena eman behar da Bertan bulegoetan, Gazte Informazio gunean edo Urnieta.eus webgunean.
Azken eguna.

OSTIRALA 14

ANDOAIN Zinema
"Bi Anai" filmaren emankizun berezia. Aiurriko harpidedunek gonbidapena eskuratu dezakete idazkaritza@aiurri.eus e-postara idatziz.
19:30 Bastero.

LARUNBATA 15

ANDOAIN Ospakizuna
Kintoen bazkaria Gaztañagan. Andoaingo 1972ko kintoen bazkarirako izen-ematea zabalik dago. Xehetasunak: whatsapp taldean: bit.ly/andoain1972.
12:00 Olloki taberna.

ANDOAIN Kontzertua
Gipuzkoa Gazte Tour: Gazir, Mnak, DJ Verse, Laina, Edu & Crutzero.
18:30 Bastero.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

El vasco
Lar., 8. 19:30,
22:00.
Igandea, 9. 19:30.
Astelehena, 10.
19:30, 22:00
(ikuslearen eguna).

El colegio de los animales magicos

Lar., 8. 17:00.
Igandea, 9. 17:00.
Argentina 1985
Igandea, 16.
19:30.
Astelehena, 17.
19:30, 22:00
(ikuslearen eguna).



SINOPSIS



EL VASCO

Zuzendaria: Jabi Elortegi. **Aktoreak:** Joseba Usabiaga, Itziar Aizpuru, Eduardo Blanco, Ines Efron, Laura Oliva, Analia Juan, Hernan Sevilla. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 100 minutu.

Lanaren Etorkizuna hobetzen, Orain.

Pertsonen alde eginez.

Lanaren kontzeptua aldatzen ari da. Hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundia gure lurraldeko enpleguaren etorkizuna lantzen ari da duela lau urtetik, Etorkizuna Erakiz egitasmoaren bidez.

Sartu etorkizunaeraikiz.eus webgunean eta ikusi gipuzkoarrok zer egiten ari garen gure etorkizunaren alde.

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN





Kale Nagusia, aspaldian. ANDOAIN

Ikerketa beka deialdia egin du Andoaingo Udalak

"Emakumeek Andoaingo euskararen normalizazioan egindako lanari buruzkoa"

Erredakzioa ANDOAIN

"Emakumeek Andoaingo euskararen normalizazioan egindako lanari buruzkoa", horixe da deialdiaren goiburua. Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak eta Euskara sailak elkarlanean egin dute deialdia. Interesa duenak urriaren 10ean hasi eta azaroaren 25era bitarteko epea izango du, proposamena helarazteko. Bekaren zenbatekoa 3.000 eurokoa izango da, eta deialdiaren irabazle denak behin betiko lana 2023ko irailaren 30a baino lehen aurkeztu beharko du. Ikerketa lanak, nola ez, originala izan behar du eta argitaratu gabea. Horrez gain, proiektua, azterlana eta memoria euskaraz burutuko da.

Deialdian jaso dutenez, "beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Proposamenarekin batera hautagaiek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute. Alde batetik, ikerketa proiektuaren memoria-laburpena. Gehienez ere lau orrialdekoa izango da. Beste aldetik, eskatzailearen curriculum vitae.

Udalak deialdiaren xehetasunak internet sarean eskegi ditu. labur.eus/emakueuskara delakoan klik eginez gero, deialdian sartuko da interesatua.

BTT irteera Zanpatuzekin

Urnietako mendi elkarteak mendi bizikleta irteera antolatatu du, Añarbeko urtegira. Igandean izango da, eta goizeko 08:30ean irtengo dira San Juan plazatik. 42 kilometrokoa, 5 ordu inguruko zeharkaldia izango da. Desnibel positiboa 935 metrokoa da. Janaria, edaria eta arropa aproposa eramateko aholkua luzatu dute. Eta, noski, kaskoa.

Mintzodromoa Andoainen

Mintzalagun egitasmoari hasiera emateko, mintzodromoa antolatatu dute urriaren 7rako. Euskaraz arituko dira partaideak, talde txikitik antolatuta. Juanita Alkainen izango da hitzordua, 17:30etik 18:00etara. Ondoren, zizka-mizka egongo da guztiontzat. Bertaratzen direnek aitzakia ezin hobe izango dute giro onean euskaraz aritzeko.



ARGAZKJABEAXXXXXX

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Urriak 10, astelehena: ANDOAIN
16:30-20:30. Anbulatorioa.
Azaroak 21, astelehena: URNIETA
16:30-20:30. Gaztelekua.
943 007 884: Txanda hartzeko

MERKATU-TXIKIA

OSTALARITZA

Urnietako Idiazabal kaleko Iparralde tabernan zerbitzari bila ari dira, lan egun erdiz aritzeko.
667 265 569 (Marlenis).

IRAKASKUNTZA

Hizkuntza eskolako irakasleak **frantseseko klaseak** ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak, 20 euro orduko. **693 692 823 - 665 719 827**

Ingelesko klase partikularrak ematen dituen norbait behar dut 9-11 urte bitarteko haurrei eskolak etxean emateko. **650 34 11 08**

SALGAI

'Antiescaras' koltxoia salgai. **660 235 259.**

Ettxe salgai Andoainen, altuera handikoa. 47 m². Sukaldea eta komuna ditu. Uraren toma mangerarekin. **667 058 641.**

EROSI

Lursaila erosiko nuke Asteasu, Zizurkil, Larraul aldean. **671 31 68 63.**

KULTURARTEKO JAIA

Urriak 15
Etxeberri Plazan URNIETA

Zuen lantzi tipikoekin etortzera anima zaitzete!!

Jaki kooperatiboa 12:00-13:30
 Janari hartzea 13:30-14:00
 Dastaketa 14:00-16:00
 Hona -trintak- ojal atikarak 16:00-20:00
 Munduko sotsialistik 16:00-20:00
 Alarma Morea kontzertua 18:00

Egunaldi trankila egingo dugu Egape ikastolan

Food Truck Leizuri izozkiak Jaia

Urnieta udala

Etxeberri plaza

Asociación de Vecinos

etxeberrijaiak@gmail.com



(Dos hermanos)
BI ANAI

BERNARDO ATXAGA - IMANOL RAYO

PROIEKZIOA ETA SOLASALDIA

Urriak 14, ostirala. 19:30
Bastero, auditorioa. 3€

Bernardo Atxagaren liburu ezaguna zinemara eramane zuten Imanol Rayo zinema zuzendari nafarrak. ESCIVIn ikasi eta gero, bere lehen film luzea osatu zuten.

Filmaren emankizun berezia eskainiko da, 35 milimetroko formatuan proiektatuz. Segidan, biekin hitz egiteko aukera izango da Garazi Kamio idazleak gidatutako solasaldian.

OHARRA: Aiurriko harpideduna al zara? E-posta idatzi idazkaritza@aiurri.eus helbidera eta gonbidapen bikoitza jasoko duzu. Emailak iritsi ahala, hurrenkera horretan banatuko dira gonbidapenak agortu arte.



bastero
KULTURGUNEA



ARIGUNEENTZAKO IZEN-EMATE EPEA ZABALIK

Aurreko edizioan parte hartu al zenuen?

EGUNERATU DATUAK!



Arigune berria al zara?

EMAN IZENA!



EUSKARAZ LASAI ARITZEKO GUNEA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

ANDOINGO ENTITATE, IZAN PUNTU-ERAGILE!

Edozein zalantza eta informazioa: andoain@euskaraldia.eus

